

Antxinako fotografixia

Olako torria konpondu aurtxuan

Ezta hainbeste urte fotografixa hau atara zala. Zuetariko askok gogoratu dozue, 1971 inguruan **Olako** plazatua itxuraketako obrak hasi ziranian, jatorrizko torretxiari erantsitta egozen baserrixak bota egin zirala eta torria soil-soillik itxi. Argazki hau, ba, obra hareiri ekin otzainekua izango da; baserrixak ez dira agiri, baiña antxiñako teillatu eta goikaldeko ladrilluzko zatixa aldian dako orraindiok, eta torre aurreko plazatua moldau barik dago.

Sasue batian **Bidaurretako torria** zan Lazarragarren etxe honen izena. Komentua baino zaharragua da, XV. mendekua gutxienez. Hurrengo gizaldixan monastegixa jasoteko obrak hasi zittuainian (1511), monjak etxe honetan egon bihar izan ebein hamar urtian, komentu barrixa modutu bitartian. Torriaren inguruan gauza asko egon da: errotak aspaldittik, olia XVII.etik XIX.rarte, baserrixak, eta XX. mendian zerria. Poligono barrixak jasoterakuan gehixenok ezkutau ziran, baiña torria eta komentua ez zik, **Ugarkaldeko presia** eta errotolara etorren **malatua** be zutik dagoz oraindiok; azkenengo hau ahaten igari-leku bihurtu bada be.

J.E.

Argazkixa Plazaolak ataratakua da eta Joxe Mari Leturiak itxidosku.

FAGOR
TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA



GURE ESQUALDE ETA
EUSKADIREKIN
ZERBITZUAN

ELKARLANEAN
ARITZEN DAKIEN
AGERBIDEA

Gu Oñatiarrekin

G Guipuzcoano
BANKUA